

EMFko ASANBLADAKO KIDEEI

Ia zazpi hilabete luze igaro dira orain jardunean den Euskal Mendizale Federazioko zuzendaritza batzordearen aurka Zentzura Mozioa aurkeztuz, ez oizko Asanblada Orokorra eskatu zenetik. Dakizuenez, gorabehera askoren ostean, Zentzura Mozioa aurrera atera zen, Asanbladan izandako partaideen gehiengo zabal batekin, 126 boto alde, eta 48 boto aurka izan baizen emaitza, hauteskunde prozesuaren ibilera zabalduz. Gure uzte apalean larregi luzatzen ari den hauteskundearen egutegiak, datorren 21ean Elgetara eramango gaitu, eta espero dugu bertan behin betiko hautatua izango dela legealdi honen bukaeraraino EMFko martxa eramango duen zuzendaritza batzorde berria, bada jakinean egongo zaretenez, bi hautagai zerrenda aurkeztu dira hauteskunde batzordeak onartuak izanik.

Ez dago gure gogoetan beste hautagai zerrendarekin inolako eztabaidan sartzea, are gutxiago euren esanetan *orain arte izandako auziarekin zer ikusi ez dutenean*.

Benetan pozten gaitu, gu aspaldi esaten hari garena, oso hantzeko planteamenduarekin euren egitarauan oinarrizko konpromisoaren artean ikusteak. Xehetasun gehiagorekin eta erabat osatuago azalduko dugu Asanbladan, bada gai zerrendak, *hautagaien esku-hartzea* puntuan, aukera emango digu horretarako. Bertan gustu askoz erantzungo dugu Asanbladako partaideak egindako galderari.

Aurrean ditugun hautagaien inpartzialak direnik ez dugu zalantzan jarriko, ez da federazioko eginkizunak aurrera eramateko gaitasuna, segur aski, berriki pasatako denboran gure lekuan izango baziren, aurkezten duten egitaraua ikusirik, eurak izango bai ziren errepikatutako Zentsura Mozioa aurkeztuko zutenak.

Guk aurkezten dugu zerrenda, Lurralde Historiko bakoitzeko bi hautagaik osatuta dago, Elkarteen eta Mendi Federazioko eginkizunetan urte askotako eskarmentua daukagunak. Honek, Euskal Mendizale Federazioko kudeaketa azkar zentratzeko aukera emango digu, martxan dauden jarduerak mantenduz, eta orain arte egon ez diren edo alboratuta egon diren beste aktibitate batzuk proposatu eta antolatuz.

Zuen Laguntzarekin, ez bakarrik hurrengo hauteskunde orokorrak heldu artean, baizik eta orain aurkeztutako zerrenda oinarri izanda, hurrengo legealdia betetzeko adoretzu sentitzen gara Federazioa kudeatzeko. Honela, Elkarre, Lurralde Federazioak eta Asanblada errespetatuz, eta hartzen diren erabakiak aurrera eramanez, Euskal Mendizale Federazioak behar duen egonkortasuna lortzea espero dugu.

Zuen asmoa hautagaitza zerrenda bata naiz bestea izan gustuko, 21ean Elgetara etortzera animatzen zaituztegu, zain egongo gara.

***Bertaratutakoak bozkatu ahal izateko agiria aurkeztu beharko dute, deialdian espresuki jartzen den moduan. Elkarreak Idazkariak eta Presidenteak sinatutako agirian, eta bakarkako ordezkariak agiri ofizialarekin**

Gasteiz, 2012ko urtarrilak 12.

Hautagai zerrendako partaideak:

Leonardo Trejo
Belén Dominguez

Juan Felipe Seemann
Juan Pedro Iturbe

Jose Maria Pradera
Alvaro Arregi